

**Mattin Aiestaran de la Sotilla**  
Arkeologoa



ARG.: Ana Galarraga/Elhuyar

## “Nolatan iraun du hizkuntza honek?”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Mattin Aiestaran de la Sotilla (Tolosa, 1991) Irulegiko indusketaren zuzendariak aztarnategian bertan erantzun die galdereri, brontzezko eskua aurkitu zuten lekutik metro pare batera. Pieza hura lurpetik atera zuen Aranzadiko boluntarioa ere, Leire Malkorra Renobales, han dabil lanean, beste kide batzuekin batera. Ezinbestean, eskua izan da Aiestaranen erantzunen hizpide nagusia, eta bada datu esanguratsu bat: sarri, lehen pertsonan erantzun du, bai, baina pluralean.

---

## *Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?*

Lehenik, esan behar da arkeologian egin dudan ibilbidea ez dela oso luzea; zorionez, oraindik asko dugu egiteko. Hala ere, eskuaren aurkikuntza jada lan pixka bat, behintzat, egina genuenean etorri da, eta, batez ere, ondo lagunduta harrapatu nau. Adinagatik ez daukagun esperientzia taldeak ematen digu. Askotan galdetu didate ez ote dudan ardura handia sentitzen horrelako proiektu bat eramateagatik, baina, azken batean, ardura hori banatu egiten da inguruan ditudan irakasle, tutore, lagun, lankide... guztien artean.

Aurkikuntzaz beraz gain, niretzat ikaragarria izan da Joakin Gorrotxategi eta Javier Velaza lehen mailako hizkuntzalariekin lana egiteko aukera izatea. Egin kontu: ingurukoek ez zekiten deus, ezkutuan gorde behar zelako, eta, paraleloan, halako adituekin nenbilen lanean. Sekula ere ez nuen pentsatu haiekin lankidetzan arituko nintzenik, diskrezio osoz eta konfiantzan. Batez ere, bien artean solasaldian aritzen zirenean, aho zabalik egoten nintzen, dena xurgatzen. Gainera, gu ez garenez hizkuntzalariak, saiatzen ziren guri egokitutako azalpenak ematen; hori bai izan dela egiazko master bat nire ibilbide akademiko eta profesionallean.

Bestela, arkeologikoki eta linguistikoki, bai izan da iraultza bat, espero ez genuena, eta haiek ere espero ez zutena. Izan ere, orain arte uste zuten baskoiek txanponetan bakarrik idatzi zutela zerbait, baina oso gutxi eta gaizki; beharbada, iberiarren eta zeltiberiarren hizki batzuk hartu eta nolabait imitatuz, baina jakin gabe zer ari ziren idazten. Eskuak hori dena irauli du: ikusi dugu ustez alfabetatu gabe zegoen herri hura alfabetatuta zegoela, eta, gainera, iberiera menderatzen zutela, hura moldatu zutelako.

## *Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke?*

Iberierak baditu 2.500 idazki inguru; zeltiberierak, 200 inguru; baskoierak, oraingo, bat. Eta ez da gutxi, orain arte uste baikenuen ezin zitekeela halakorik egon. Eskua, idatzirik ez balego ere, pieza berezia da, sinbolismoarengatik, eta non agertu den... Berez, arkeologiatik ikertzeko oso zailak diren bi gai ditu, bi gai immaterial. Hain justu, guk, arkeologian, aztarna materialekin lan egiten dugu, eta badugu sendotasun dezente solasteko arkitekturaz, artisautzaz, dietaz, bizimoduaz... Baina antolaketa politikoa, erlijioa, hizkuntza... hori dena immateriala da.

Hala ere, gustatuko litzaidake gehiago jakitera iristea. Deszifratzea oso zaila da, eta, noski, denok nahiko genuke idazki gehiago agertzea eta esanahia argitzea lortzea. Baina ikusita iberierak badituela 2.500 idazki inguru, eta egungo Italian ere badirela hizkuntza fragmentario deitzen direnak, batzuk 11.000 laginekin, eta ez direla deszifratzeko gai... Guk bakarria dugu, eta ez dugu zerekin konparatu. Konparatu dezakegu bi mende geroago latinaren artean agertzen diren jainko- eta pertsona-izenekin; gero, XV. mendeko testu zahar horiekin... baina hor milaka urte igaro dira. Iberierak eragingo zion, latinak gero, hizkuntza germanikoek, arabierak, gaur egun ingelesa ari zaio eragiten...

Eta hori da kontua: nolatan iraun du hizkuntza honek? Agian eskuan idatzita dagoen hizkuntza haren ondorengoa da oraingo euskara, edo gerora Akitanian aurkitu diren idazkietako hizkuntzarena; ez dakigu. Baina iraun du. Eta, aldiz, indartsuen zeuden beste batzuek ez. Hori zergatik da? Zein da horren azalpena? Hori da jakin nahiko nukeena: zergatik iraun du euskarak gaur arte? ●